

Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko programako dirulaguntzen 2022. urteko deialdia.

1. Oinarri arautzaileak.

Gipuzkoako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko Programaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak Diputatuen Kontseiluak 2021eko irailaren 7ko erabakiaren bitartez onartutakoak dira (GAO, 176. Zki. - 2021eko irailaren 14an), eta Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez aldatu ziren 2021eko urriaren 26an (GAO, 206 zk. – 2021eko urriaren 27an) eta 2022ko apirilaren 26an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi honekin batera argitaratuak.

2. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea 2022ko ekainaren 23an, goizeko 12:00etan amaituko da.

3. Ebazpena jakinarazteko bidea.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntza emateko, edo kasua balitz, ukatzeko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

4. Finantzaketa.

Deialdi honen bidez emango diren dirulaguntzen zenbateko osoa **1.500.000,00** eurokoa da. Zenbateko hori 1. .0410.100.470.00.40.2022 aurrekontuko kontu sailaren kargura izango da.

5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Deialdi honi erantsitako eskabidea soilik aurkeztuko da. Eskabide horren formularioa eskuragarri egongo da zergabidea [webgunean](#).

I. ERANSKINA

MERKATARITZAREN ETA OSTALARITZAREN SEKTOREAN DIGITALIZAZIOA SUSTATZEKO PROGRAMAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK.

1. oinarria. Objektua.

Oinarri hauen xedea da dirulaguntzak ematea merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorea digitalizatzeko prozesua bultzatzeko eta indartzeko, sektore horien ekonomia eta enplegua suspertzeko funtsezko bideetako bat den aldetik.

2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1. Onuradunak izango dira jarduera ekonomikoa duten pertsona fisikoak, nortasun juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeak eta pertsona juridikoak, baldin eta haien zerga-egoitza eta lantokia Gipuzkoan badago eta haien jarduera (2022ko urtarrilaren 1a baino lehen) oinarri hauen eranskinean zerrendatutakoaren artean badago.

2.2. Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, oinarri hauen objektu diren laguntzen onuradun izateko baldintza da, halaber, Zergabidearen bidez izapidetutako eskaeraren dataren aurreko 15 egun naturaletan TicketBAI altako 15 fitxategi gutxienez Gipuzkoako zerga-administrazioan jaso izana, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onartzen duen 2020ko abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuan jasotako definizioaren arabera. Horretarako, FakturaBAI ez den beste software bat erabiliko da.

2.3. Laguntza emateko baldintza izango da dirulaguntza hauek argitaratzen direnetik 2022ko irailaren 1era bitartean, gutxienez 120 TicketBAI altako fitxategi bidaltzen jarraitzea. Horretarako, FakturaBAI . ez den beste software bat erabiliko da.

Azken baldintza hori betetzen ez bada, ebazpena aldatu egingo da eta, hala badagokio, dirulaguntza itzuliko da.

2.4. Pertsona fisiko eta juridiko onuradunek, bai eta nortasun juridikorik gabeko erakunde onuradunetan sartzen direnek ere ez dute administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso behar sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitakoaren arabera.

2.5. Ezingo dira onuradun izan Diputatuen Kontseiluak 2021eko irailaren 7an onartu eta 2021eko irailaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdian (176. zenbakia) ez eta deialdi horren aldaketaren ondorioz (2021eko urriaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 206. zenbakia) onuradun izan ziren pertsona fisiko eta juridikoak.

2.6. Dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, eta osasun-egoerak eragindako inguruabar sozio-ekonomikoak eta transizio digitalak dakartzan kontsumo ohitura berriak, eta diruz laguntzen diren jarduera sektoreetan duen eragina kontuan hartuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 7ko 3/2007 Foru Arauaren 12.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eskatzaileak salbuetsita geratzen dira zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzetik.

2.7. Onuradunek baimena ematen diote Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurumeneko Departurkari Ogasun eta Finantza Departamentuarekin kontrastatzeko bideratutako dokumentazioa FakturaBai edo beste software bati dagokio.

3. oinarria. Dirulaguntza emateko prozedura.

3.1. Elkarrekiko lehiarik gabe onartuko dira laguntzak, aurrekontu zuzkidura agortu arte.

3.2. Eskaerak ebazterakoan kontuan hartuko da eskaeren jasotze hurrenkera eta horren arabera banatuko dira funtsak, baldin eta deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte, deialdian xedatutako aurrekontua agortu arte.

3.3. Dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, aurreko atalean aipatzen den deialdi publikoaren bidez, zeina Diputatuen Kontseiluan onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko baita.

4. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

4.1. Eskaerak horretarako dagoen berariazko inprimakia erabiliz aurkeztuko dira.

4.2. Eskaerak izenpetzeko: (i) pertsona fisikoen kasuan, interesdunak berak; legeek onartutako moduetatik edozeinen bidez haren ordezkari egiaztatzen duenak edo zerga-ordezkaritza duenak; (ii) pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeen kasuan, legeek onartutako moduetatik edozeinen bidez entitate interesdunaren ordezkari egiaztatzen duenak edo zerga-ordezkaritza duenak.

4.3. Deialdiaren informazioa eskuragarri egongo da Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuaren web orrian nahi duenarentzat. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia>.

4.4. Eskaera orria, deialdian itsatsitako ereduari jarraituz, honako web orri honen bitartez aurkeztuko dira: zergabidea.gipuzkoa.eus.

4.5. Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak automatikoki egiaztatuko du, eskaera egiten den unean, Zergabidea plataforman:

- Pertsona edo entitate eskatzaileak helbide fiskala Gipuzkoan duela.
- Gipuzkoako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dauden epigrafeak, 2022ko urtarrilaren 1eko egoera, eta egungo egoera.
- Azken 15 egun naturaletan jasotako TicketBAI altako fitxategien kopurua.

Ondoren, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak egiaztatuko du TicketBAI altako fitxategiak FakturaBAI. ez den beste software batekin sortu eta bidali direla eta 2022ko irailaren 1era arte egindako bidalketen guztizko kopuruak 2.3 puntuan ezarritakoa betetzen duela.

Eskaera ezin bada Zergabidetik izapidetu, edo eskatzaileak Zergabidea plataforma erabiltzeko baimen inplizitua edo ondoren Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak egin beharreko kontrolerako beharrezkoa den datu-lagapena berariaz ukatu nahi duenean, eskaera eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikokoan (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>).

4.6. Deialdian finkatuko da eskaerak aurkezteko epea.

4.7. Entitate eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak posta elektronikoen bidez dirulaguntzaren eskaeran harremanetarako pertsona gisa identifikatutakoaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiak.

5. oinarria. Finantzaketa.

Emango diren dirulaguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian ezarriko dira dirulaguntzak finantzatzeko zein aurrekontu kreditu erabiliko diren.

6. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa

6.1. Enpresa bakoitzeko laguntzaren zenbatekoa mila eurokoa(1.000,00 €) izango da.

6.2. Bidalitako TicketBAI altako fitxategiei dagozkien faktura osoak edo sinplifikatuak euskaraz bidaltzen badira, laguntza %20 handituko da. Horretarako, eskabidea egiteko idazkian aukera hori adieraziko da, eta aldi horretan egindako eta baldintza hori betetzen duten fakturen, osoa edo sinplifikatua, gutxienez 5 irudi erantsiko dira.

7. oinarria. Prozedura ordenatu eta bideratzeko organo eskuduna.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentuaren Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak bideratuko du prozedura. Zerbitzu horrek, ofizioz, proposamena formulatzeko datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze ko behar diren jarduketa guztiak egingo ditu

8. oinarria. Dirulaguntza emateko ebazpena.

8.1 Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentuko Ekonomia Sustapeneko zuzendari nagusiari dagokio dirulaguntza emateko edo, kasua balitz, ukatzeko ebazpena ematea.

8.2. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

8.3 Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilekoa da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta, salbu deialdian bertan bere eragina beranduago hasiko dela aurreikusi. Gehieneko epe hori berariazko ebazpena jakinarazi gabe igaroko balitz, interesdunak legitimatuta egongo dira beraiek egindako eskaera ezetsizat jotzeko isiltasun administratiboaz.

9. oinarria. Enpresa onuradunen betekizun eta konpromisoak.

9.1. Enpresa onuradunek dirulaguntzak onartzeak martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea dakar, baita oinarri orokor hauetan nahiz deialdian ezartzen direnak ere.

9.2. Dirulaguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, dirulaguntza itzuli beharko da eta 13. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

10. oinarria. Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna ala bateraezintasuna.

10.1 Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan estatalak, izan Europar Batasuneko edo izan nazioartekoak, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderek.

10.2 Oinarri hauen babesean jasotako dirulaguntzaz garatutako proiektua garatzeko beste dirulaguntzaren bat eskuratu edota eskatu duen onuradunak modu fidagarrian jakinaraziko dio zirkunstantzia hori dirulaguntza Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuari.

11. oinarria. Dirulaguntzak ordaintzea.

Dirulaguntzak ematen diren aldi berean ordainketa aginduko da, baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.

12. oinarria. Ebazpena aldatzea.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuak ofizioz aldatu ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpena, enpresa interesatuari aurrez entzunda eta fondoak aplikatu aurretik, dirulaguntza emateko unean kontuan izandako baldintzak aldatu direla-eta ezinezkoa edo zaila denean erdietsi nahi den interes publikoa lortzea eta entitate onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

13. oinarria. Ez betetzeak eta itzulketak.

Onuradunak ez badu betetzen oinarri hauetan, 3/2007 Foru Arauan, martxoaren 27koan, eta aplikagarriak diren bestelako araudietan ezarritako betekizun edo baldintzetako edozein, dirulaguntza jasotzeko eskubidea erabat edo zati batez galduko du, eta dirulaguntza osorik edo zati batez itzuli beharko du, dagozkion berandutza-interesak ordaintzeaz batera, aipatu Foru Arauaren 35. artikuluan xedatutakoarekin bat. Osterantzean, honetatik ondoriozta daitezkeen erantzukizunak egokituko zaizkio, Foru Arau horretako 49. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ildotik.

14. oinarria. Europar Batasuna.

Oinarri arautzaile hauetan dauden laguntzak 2013ko abenduaren 18ko Europar Batzordearen 1407/2013 EB Erregelamenduan (ikus 2013ko abenduaren 24ko Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala), minimis laguntzak Tratatuko 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoan, xedatutakoa beteko dute. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa bakar bati emandako MINIMIS laguntzak ezin dira guztira 200.000 eurotik gorakoak izan dagokion zerga ekitaldian eta aurreko bietan.

14. oinarria. Araubide juridikoa.

Oinarriotan ezarritakoaz gain, dirulaguntza hauei honako hauek aplikatuko zaizkie: Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua eta hori garatzeko Erregelamendua, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartua, eta dirulaguntzen alorrean aplikagarriak diren gainerako araudiak.